Osakidetza



DOKUMENTAZIO SANITARIOKO TEKNIKARIA

GALDERAK

1.- ISAD(G) arauaren arabera, deskribapenaren edozein elementutan egin beharreko aipamen bibliografikoek ISO arau hau bete behar dute:

a) ISO 125.
b) ISO 690.
c) ISO 1014.
d) ISO 9001.

2.- ISAD(G) arauaren arabera, hauetako ez da deskribapen artxibistikoaren informazio-eremua:

a) Identifikazioaren eremua.
b) Izenburuaren eremua.
c) Testuinguruaren eremua.
d) Oharren eremua.

3.- ISAD(G) arauaren arabera, zer da "dokumentu-mota"?

a) Antzeko ezaugarri fisikoak edota antzeko ezaugarri intelektualak izatea bereizgarri duen dokumentu-kategoria.
b) Unitate gisa hartzen den dokumentua edo dokumentu-multzoa, edozein molde fisikokoa, deskribapen bakarraren helburu dena.
c) Intelektualki zatitu ezin den artxibistika-unitaterik txikiena.
d) Eraren batean erregistratuta geratu den informazioa, edozein delarik berorren euskarria edo ezaugarriak.

4.- Nori ireki behar zaio historia klinikoa?

a) Ospitalean jaiotzen diren ume guztiei.
b) Urgentzietan artatzen diren paziente guztiei.
c) Kirurgia handi anbulatoriorako ospitaleratzen diren paziente guztiei.
d) Aurreko guztiei.

5.- Osasun Ministerioaren arabera, nolakoa izan behar da historia klinikoa?

a) Bakarra, bateratua eta antolatua.
b) Bakarra, integratua eta bateratua.
c) Bakarra, bateratua eta kronologikoa.
d) Antolatua eta integratua.

6.- Historia kliniko informatikoa/elektronikoa dela eta, adierazpen hauetatik zein ez da zuzena?

a) Erregistroen trazabilitatea aztertzeko aukera ematen du.
b) Aldi bat (24 ordu) igarotakoan ezin da egin aldaketarik, ezta egileak berak ere.
c) Halako historiak edukitzeko arrazoi nagusia papera ez erabiltzea da, historiak handiegiak izan ez daitezen.
d) Zentroko langile guztiek eskuratu ditzakete.

7.- 38/2012 Dekretuak, historia klinikoari eta osasun-arloko paziente eta profesionalek dokumentazio klinikoaren arloan dituzten eskubide eta obligazioei buruzkoak, historia klinikoa erabiltzeko eskuliburua egin beharra ezartzen du. Alderdi hauetako zein ez da lantzen eskuliburu horretan?

a) Historia klinikoak eta dokumentuak betetzeko prozedura.
b) Historia klinikoaren kalitatea ebaluatzeko metodoa.
c) Kontserbatzeko eta erabiltzeko erantzukizunak.
d) Dokumentazio klinikoaren kontserbazioa.

8.- Historia klinikoan txosten kirurgikoaren dokumentua egoten da. Dokumentu horretan atal hauetako zein <u>EZ</u> da egon behar?

a) Anestesia-mota.
b) Botika-profilaxia.
c) Pazientearen egoera eta nora eramango duten ebakuntza-gelatik ateratzean.
d) Iraupena: hasiera- eta amaiera-ordua.

9.- 38/2012 Dekretuak, historia klinikoari eta osasun-arloko paziente eta profesionalek dokumentazio klinikoaren arloan dituzten eskubide eta obligazioei buruzkoak, ezartzen duenaren arabera, hautatu zuzena:

a) Sorturiko dokumentazio klinikoa bost urtez gorde beharko da, gutxienez, osasun-laguntzako jardueraren alta-egunetik kontatzen hasita.
b) Paziente bat hiltzen denetik 5 urte igarotakoan hari buruzko dokumentazio kliniko guztia ezabatu daiteke.
c) 20 urtetan mugimendurik ez duten historia klinikoak ezabatu daitezke.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

10.- OSNko historia kliniko laburtuaren osagaiak:

a) Aurrekariak.
b) Alertak.
c) Erizaintzako diagnostikoak, prozedurak eta esku-hartzeak.
d) b) eta c) zuzenak dira.

11.- Zer da berringresua?

a) Ospitalean egon ondoren etxera joan eta 15 egun igaro aurretik zerbitzu berean diagnostiko berarekin presazko ingresua ematea pertsona bati.
b) Ospitalean egon ondoren etxera joan eta 15 egun igaro aurretik edozein zerbitzutan diagnostiko berarekin presazko ingresua ematea pertsona bati.
c) Ospitalean egon ondoren etxera joan eta 15 egun igaro aurretik presazko ingresua ematea pertsona bati.
d) Ospitalean egon ondoren etxera joan eta 15 egun igaro aurretik aurreko episodioaren konplikazio batengatik presazko ingresua ematea pertsona bati edo ingresua programatzea.

12.- Zer nekropsia zenbatu behar dira?

a) Ohe bat okupatu ondoren zendutako pertsonei egiten zaizkienak.
b) Larrialdi Zerbitzuan zendutako pertsonei egiten zaizkienak.
c) Hilda jaiotzen diren fetuei egiten zaizkienak.
d) Aurreko guztiak zenbatu behar dira.

13.- Hauetako bat EZ da ebakuntza kirurgikoa bertan behera uzteko arrazoia:

a) Aldi bereko gaixotasuna.
b) Pazienteak hobera egitea.
c) Ebakuntzaren aurreko aldia aski ez izatea.
d) Ondo prestatu ez egotea, jarraibideak ondo bete ez dituelako.

14.- Hauetako bat EZ da ebakuntza kirurgia txikitzat jotzeko irizpidea:

a) Konplexutasun handikoa ez izatea.
b) Anestesia lokalarekin edo anestesiarik gabe egitea.
c) Ebakuntzaren ondoren berehala suspertzea.
d) KHA modura katalogatzea.

15.- Historia klinikoen kalitatea "Audit" ebaluazioaren bidez neurtzen da. Eredu hauetako zein EZ da erabiltzen "Audit" metodoaren kanpo-ebaluazioan?

a) ISO ebaluazio-sistema (9000 / 9001 / 9002).
b) Autoebaluazioa.
c) JCAHO (Join Commission on accreditation of Healthcare Organizations).
d) EFQM (European Foundation for Quality Management).

16.- Hauetako bat EZ da artxibo zentralizatuen abantaila:

a) Pertsona bakoitzaren dokumentazio kliniko guztia bateratzea.
b) Artxiboa zentralizatzeko, barruko araudi zehatzak ezarri behar dira, artxiboko langileek zorrotz bete beharrekoak.

c) Pazienteen arretaren fase guztietan sortzen den informazioa biltzen da eta horri esker prozesu baten eta aurreko prozesuen komorbilitatearen ikuspegi orokorra eduki daiteke.
d) Dokumentazioa eta informazioa lantzeko protokoloak eta estandarrak prestatzeko lana errazten du, bai eta artxiboko prozeduren aldaketa orokorrak ere.

17.- Informatizazioari esker, paperean egindako historia klinikoen artxiboak desagertzen ari dira. Hala ere, ospitale batek artxiboa mantendu behar izanez gero, zein da historiak ordenatzeko eta sailkatzeko sistemarik hoberena?

a) Sailkapen alfabetikoa.
b) Sailkapen kronologikoa.
c) Zenbakizko sailkapena.
d) Sailkapen alfanumerikoa.

18.- Definizio hauetatik zein da zuzena?

a) Dokumentuak garbitzea: dokumentuen kopurua eta kalitatea aztertzea, ezabatu edo gorde behar diren erabakitzeko.
b) Artxibo aktiboa: paziente guztien dokumentazio osoa biltzen duen artxiboa.
c) Artxibo pasiboa: historia batean 10 urtean mugimendurik ez dagoenean sortzen da.
d) Artxibo historikoa: zendutako pazienteen historiak biltzen diren artxiboa (mugimendurik gabeko historiak).

19.- Zer eduki behar du historia kliniko informatizatuak eskuratzeko segurtasun-plan batek?

a) Atzipen-kontrola.
b) Osotasuna.
c) Konfidentzialtasuna.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

20.- Osasun-zerbitzuak ebaluatzeko metodoak direla eta, analisi hauetako zein erabiltzen da zerbitzu horiek helburuko populazioan duten eragina neurtzeko (esaterako, salbatutako bizi-urte potentzialak)?

a) Kostu-eraginkortasunaren analisia.
b) Kostu-irabazien analisia.
c) Kostu-efikaziaren analisia.
d) Kostu-erabilgarritasunaren analisia.

21.- Hauetako bat ez da komunikazio eraginkorrerako baldintza:

a) Anbiguotasuna saihestu behar da.
b) Mezuan kontuan eduki behar dira hartzailearen ezaugarriak eta inguruabarrak, giza faktoreak eta ingurune-faktoreak.

c) Zenbat eta informazio gehiago eman prozesu jakin bati buruz, hobea izaten da feedbacka.
d) Erabiltzen den hedabidea hartzailearengana iritsi behar da.

22.- Enplegu-eskaintza publikoan zenbait lanbide-taldetako lanpostu asko daude; beraz, askotariko prestakuntza-mailak edo titulazioak dituzten pertsonak aurkeztu daitezke. Zer kategoriatakoak dira "kudeaketako eta erdi-mailako teknikarien kidegoko" lanbide-taldeak?

a) A taldea.
b) B taldea.
c) C taldea.
d) D taldea.

23.- Intzidentzia-tasari buruzko adierazpen hauetatik zein da zuzena?

a) Izendatzailea esposiziopeko populazioa da.
b) Aldi jakin batean gertatzen diren kasuen kopurua adierazten du.
c) 1.000ko tasa da.
d) a) eta b) zuzenak dira.

24.- Godet-en arabera 3 fase daude plangintza estrategikoa. Zein ez da zuzena?

a) Fase estrategikoa.
b) Kudeaketa-fasea.
c) Eragiketa-fasea.
d) Aurrekontu-fasea.

25.- Lantaldearen oinarriak "5c" izenekoak dira. Zein da hau: "taldeko kide bakoitza proiektuaren eremu jakin batez arduratzen da"?

a) Osagarritasuna.
b) Koordinazioa.
c) Konpromisoa.
d) Konfiantza.

26.- Batzuetan jarduera-arlo bateko langile batzuk beren borondatez biltzen dira beren arazoak aztertzeko eta konponbideak aurkitzeko. Horrelakoetan, nola esaten zaio eratzen dutenari?

a) Autokudeaketako taldea.
b) Kalitate-zirkulua.
c) Errendimendu handiko taldea.
d) Hobekuntza-taldea.

27.- Metodo-multzo bat, helburu hauek dauzkana: behaketak antolatzea, eskura dagoen informazioa laburbiltzea eta haien ezaugarriak azaltzen dituzten kopuruak neurtzea; zer da?

a) Ausazko lagina.
b) Maiztasun-banaketa.
c) Parametro estatistikoa.
d) Estatistika deskribatzailea.

28.- Ausazko laginei buruzko adierazpen hauetatik zein da zuzena?

a) Lagin baten adierazgarritasuna bermatzeko modua da ausazko prozeduren bidez lortzea.
b) Laginak ausaz eratzeak haien adierazgarritasuna bermatzen du, oinarria zoria baita.
c) Ausazko hautapen errazena ausazko laginketa bakuna da.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

29.- Aldagai kuantitatiboak direla eta, hauetako zein ez da sakabanatze-neurria?

a) Tartea.
b) Moda.
c) Bariantza.
d) Desbideratze estandarra.

30.- Ospitale baten akreditazioan, zein da ospitaleko zerbitzu baten akreditazioaren muina?

a) Prestakuntza.
b) Ikuspegia.
c) Emaitzak.
d) Autoebaluazioa.

31.- ISO 9000:2000 arauetako zer ISO eredu erabiltzen da pazienteen gogobetetasuna hobetzeko?

a) ISO 9001.
b) ISO 9004.
c) ISO 9006.
d) ISO 9016.

32.- ISO ereduen arloa:

a) Ziurtapena.
b) Akreditazioa.
c) Bikaintasuna.
d) Etengabeko hobekuntza.

33.- EFQM ereduaren arloa:

a) Etengabeko hobekuntza.
b) Bikaintasuna.
c) Akreditazioa.
d) Ziurtapena.

34.- EFQM ereduan agente-irizpideetako batek 5 azpiirizpide dauzka; zein da?

a) Lidergoa.
b) Pertsonak.
c) Estrategia.
d) Prozesuak.

35.- HBV birusak eragin dezakeen patologia:

a) Crohn-en gaixotasuna.
b) Helicobacter Pylori.
c) Hepatitisa.
d) Kolelitiasia.

36.- Begi-hondoaren irudiak lortzeko erabiltzen den zauri gabekoi prozedura diagnostikoa:

a) Erretinografia.
b) Kanpimetria.
c) Trabekulektomia.
d) Tonometria.

37.- Nahasmendu otorrinolaringologikoen sintomarik ohikoena:

a) Otorrea: sudur-zuloko jario ugaria.
b) Odinofagia: belarriko mina.
c) Tinnitusa: kanpoko estimulurik gabe entzuten den soinua.
d) Afonia: fonazioaren eragozpena eta ahotsaren ohiko tinbrea aldatzea.

38.- Haustura irekiak sailkatzeko erabiltzen da:

a) Gustilo-ren sailkapena.
b) Wallace-ren 9en araua.
c) Salter eta Harris-en sailkapena.
d) FRAX tresna.

39.- Jaio aurreko diagnostikorako teknika hauetako bat inbaditzailea da:

a) Garondoko transluzentzia.

b) Triple screening-a.
c) Amniozentesia.
d) a) eta b) zuzenak dira.

40.- Endometriosi-fokuen ablazio laparoskopikoa kodetzean, zer motatako prozedura da (3. ezaugarria)?

a) Suntsipena.
b) Erauzketa.
c) Zatiketa.
d) Erresekzioa.

41.- CIE-O-3.1 sailkapenaren arabera, 5. digitua hauxe izan behar da portaera "in situ" dela adierazteko:

a) 1.
b) 2.
c) 3.
d) 6.

42.- Paziente batek bihotz-gutxiegitasun kronikoa dauka. Koadro honekin heldu da: biriketako edema akutua (BEA), disnea eta eztula. Zer kode erantsi behar zaio J81.0 kodeari (BEA)?

a) DP.
b) DS, kardiogenikoa delako.
c) DS, kardiogenikoa ez delako.
d) Ez da ezer erantsi behar.

43.- Zer prozeduratan kodetzen dira berezko abortuen prozedurak?

a) A "Abortua".
b) D "Erauzketa".
c) P "Kentzea".
d) 9 "Drainadura".

44.- "Colles-en haustura ezkerreko besoan. Pazientea haurdunaldiko 19. astean dago. Hausturak ez dio erasan haurduntzari". Nola kodetu behar da kasu hau?

a) DP: O26.92 DS: Z3A.19 DS: Z37.0
b) DP: S52.532A DS: Z3A.19 DS: Z37.0
c) DP: S52.532A DS: Z3A.19 DS: Z33.1
d) DP: O26.92 DS: Z3A.19 DS: Z33.1

45.- Haustura traumatikoen kodeak direla eta, hautatu adierazpen zuzena:

a) Ez bada zehazten haustura irekia ala itxia den, haustura itxi modura kodetu behar da.
b) Laugarren karaktereak egitura anatomikoa adierazten du.
c) Seigarren karaktereak haustura zer aldetan gertatu den adierazten du eta haustura nolakoa den zehazten du.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

46.- "Laparoskopiaz lagundutako sigmoidektomia irekia". Nola kodetzen da abordatzea?

a) Irekia.
b) Irekia, endoskopikoa.
c) Endoskopikoa, larruazalean zeharrekoa.
d) Zulo naturala edo artifiziala, endoskopikoa.

47.- Barrett-en ultzerak digestio-hodiko eremu honi erasaten dio:

a) Hestegorria.
b) Urdaila.
c) Duodenoa.
d) Jeiunoa.

48.- Kanpoko kardiobertsio elektrikoaren kodea:

a) 5A1945Z
b) 5A02210
c) 5A2204Z
d) 5A09457

49.- Zer adierazten du -rrafia atzizkiak?

a) Fluxua.
b) Jostura.
c) Haustura.
d) Biguntzea.

50.- Bihotzeko eskuin-aurikularen eta eskuin-bentrikuluaren artean balbula bat dago; nola deritzo?

a) Balbula mitrala.
b) Birika-balbula.
c) Balbula trikuspidea.
d) Aorta-balbula.

51.- Prozedura hauetako bat diagnostikorako zein terapiarako erabil daiteke:

a) Erradioskopia.
b) EMG.
c) Gammagrafia.
d) Endoskopia.

52.- Zer kasutan gertatzen da botika baten kontrako erreakzioa?

a) Erreakzioa botikaren eta alkoholaren arteko interakzioak eragiten duenean.
b) Erreakzioa botikaren preskripzio okerrak eragiten duenean.
c) Erreakzioa agindutako botiken eta agindu gabekoen arteko interakzioak eragiten duenean.
d) Erreakzioa errezetarik behar ez duen botika batek eragiten duenean, behar bezala eman arren.

53.- Laguntza-harremanak direla eta, hautatu adierazpen zuzena:

a) Oinarria pazientearen erabateko onarpena izan behar da.
b) Esaerak erabili behar lirateke: konfiantza-lotura sortzen laguntzen dute.
c) Distantzia terapeutikoaren eraginez laguntza-harremanak ez dira hurbilekoak ez enpatikoak.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

54.- Erabiltzailearen arreta zerbitzuaren egitekoak:

a) Erabiltzaileen gogobetetasun-maila ebaluatzea.
b) Eskubide eta Betebeharren Gutunaren berri ematea profesionalei eta erabiltzaileei.
c) Erabiltzaileek beren historia klinikoak eskuratzeko prozesuak diseinatzea eta kudeatzea.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

55.- Kexak eta erreklamazioak profesionaltasunez kudeatzeko teknika:

a) Eraginkorrena ereduzko erantzun orokorrak erabiltzea da.
b) Azkar jokatzea; denbora da gakoa.
c) Nika gabe guka aritzea: “sentitzen dut” esan beharrean “sentitzen dugu” esatea.
d) Errua norena den argitzea ezinbestekoa da egoera ondo gobernatzeko.

56.- Pazientearen gogobetetasuna dela eta, adierazpen hauetatik zein da zuzena?

a) SERVQHOS galde-sortaren bidez ospitalearen kalitate teknikoa neurtzen da.
b) Gakoa pazientearen itxaropenak betetzea da.
c) Barometro Sanitarioaren arabera, medikuen tratua hobetu behar da.
d) Pazienteen asegabetasuna informazio-urritasunarekin lotzen da.

57.- Sekretu profesionalaren inguruko adierazpen hauetatik zein EZ DA ZUZENA?

a) Sekretu profesionala hausteagatik diru-zehapena edo desgaikuntza ezar daiteke, eta kasu batzuetan espetxe-zigorra ere bai.
b) Sekretu profesionala osasun-arloko langileen konpromiso etiko eta legala da; ez da hautsi behar inoiz.
c) Konfidentzialtasuna ez errespetatzeak kalte egin diezaioke pazientearen sendatze-prozesuari.
d) Sekretu profesionala ez da hausten pazienteak eskatzen duenean bere senideei informazioa emateko.

58.- Pazientea CSURetara bideratzea dela eta, hautatu adierazpen zuzena:

a) Bideratzeko prozesua SIFCOren bidez erregistratzen eta baliozkotzen da.
b) Presako kasuetan (erredurak, esaterako) aldaketa azkar egin daiteke, SIFCO erabili gabe.
c) CSURak arreta ematen duten autonomia-erkidegoek berek izendatuko dituzte.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

59.- Plano anatomiko batek honela banatzen du gorputza: kraniala eta kaudala. Zein da?

a) Plano sagitala.
b) Plano axiala.
c) Plano koronala.
d) Plano frontala.

60.- Hautatu "finkapena" adierazten duen erroa/atzizkia:

a) -desis.
b) -raf-.
c) -pex-.
d) a) eta c) zuzenak dira.

61.- Glasgow eskalaren arabera, kode hauetatik zein da hitzezko erantzun hoberena adierazten duena?

a) R40.2433
b) R40.2123
c) R40.2213
d) R40.2313

62.- Hauetatik zein EZ da CIE-10-ES unitate teknikoaren egitekoa?

a) Parte hartzea kodetzearen inguruko prestakuntza-programetan, nazionaletan zein autonomikoetan.

b) CIE-10-ES sailkapenaren bertsioak aldian-aldian eguneratzea.
c) Datu klinikoen auditoretzak egiten laguntzea.
d) CMBD erregistroaren bertsioak aldian-aldian eguneratzea.

63.- CIE-10-ES sailkapeneko gaixotasunen aurkibide alfabetikoa dela eta:

a) Produktu kimikoen taula dago, bai eta kanpoko eragileen aurkibide alfabetikoa ere.
b) Eponimoak ez dira agertzen letra lodiz idatzita.
c) Funtsezkoak ez diren termino aldarazleek kodearen esleipena aldatzen duen informazioa ematen dute.
d) Funtsezkoak ez diren termino aldarazleak letra lodiz idazten dira.

64.- Gaztelaniaz, CIE-10-ES diagnostiko-kodeen sailkapeneko funtsezko aldarazleak direla eta:

a) "con" eta "sin" azpiterminoak "c" eta "s" letren araberako ordena alfabetikoan agertzen dira.
b) Zenbakiek lehentasuna dute karaktere alfabetikoen aldean.
c) Funtsezko aldarazleetan ez dago zenbakirik.
d) Funtsezko aldarazleak letra lodiz idazten dira eta funtsezkoak ez direnak ez.

65.- CIE-10-ES sailkapeneko gaixotasunen taula-zerrenda:

a) Zerrenda alfabetikoa da; irizpide anatomikoen arabera antolatutako 23 kapitulu daude.
b) Zerrenda alfabetikoa da; irizpide anatomikoen eta estrukturalen arabera antolatutako 21 kapitulu daude.
c) Zerrenda alfanumerikoa da; irizpide nosologikoen arabera antolatutako 23 kapitulu daude.
d) Zerrenda alfanumerikoa da; irizpide anatomikoen edo nosologikoen arabera antolatutako 21 kapitulu daude.

66.- CIE-10-ES sailkapeneko gaixotasunen taula-zerrenda:

a) Kategoria bakoitzaren kodeak hiru karaktere dauzka: lehenengoa karaktere alfabetikoa da beti eta bigarrena zenbakia.
b) Kapitulu bakoitzak bere zenbakia dauka (batzuetan bi).
c) Ez da erabiltzen "x" letra.
d) Inklusio-terminoak letra lodiz agertzen dira.

67.- Gaixotasun infekzioso eta parasito-gaixotasun batzuen kodeak:

a) Haurduntzan, erditzean eta puerperioan konplikazioak sortzen dituzten infekzioen kodeetan, lehenbizi kode obstetrikoak agertzen dira eta ondoren infekzioaren kodea.
b) Gaixotasun infekziosoen eta parasito-gaixotasunen sekuelen kodeetan, lehenbizi sekuelaren kodea agertzen da eta ondoren hondar-gaitzarena.
c) Kapitulu honetan ez da erabiltzen kode osagarririk.

d) Kokapen zehatzik gabeko infekzioek ez daukate koderik.

68.- Pertsona bat arnas gutxiegitasun akutuarekin ospitaleratu dute. Gutxiegitasuna pseudomonas-pneumoniaren ondoriozko sepsiak eragin du. Zein da diagnostiko nagusia?

a) Sepsi larria.
b) Pseudomonas-pneumonia.
c) Pseudomonas-ek sortutako sepsia.
d) Arnas gutxiegitasun akutu zehaztugabea hipoxiarekin edo hiperkapniarekin.

69.- GIBaren kodeak:

a) B20 eta Z21 kodeak ordena horrexetan agertu behar dira beti kasu honetan: pazientearen sailkapena "GIB positiboa" da, baina ez dauka sintomarik.
b) Susmoak ez dira egia modura kodetzen. Baieztatutako kasuak baino ez dira kodetzen.
c) GIBa daukan pertsona GIBarekin lotutako patologia batengatik ospitaleratzen bada, kode nagusia patologiarena izan behar da.
d) GIBa daukan pertsona aldi obstetrikoan ospitaleratzen bada, lehenbizi B20 ipini behar da.

70.- CIE-10-ES diagnostikoen sailkapenaren arabera "eramaileak":

a) Infekzioa dauka, baina ez du transmititzen, sintomak eduki arren.
b) Infekzioa dauka, transmititzen du eta jasaten du.
c) Hozia dauka eta transmititzen du, baina ez dauka infekziorik.
d) Hozia dauka, baina ez du transmititzen; infekzioa dauka.

71.- CIE-10-ES diagnostikoen sailkapena, neoplasien kodeak:

a) "Neoplasia zehaztugabea": ez dakigu ez histologiaren ez portaeraren berri.
b) "Neoplasia zehaztugabea": badugu histologiaren berri, baina portaerarena ez.
c) "Bilakaera zalantzagarriko neoplasia": histologia ez da ondo zehaztu eta ezin da jakin nondik joko duen.
d) "In situ kartzinoma": neoplasia onbera da.

72.- CIE-10-ES diagnostikoen sailkapena, neoplasien kodeak:

a) Neoplasien taulako ardatz horizontalean neoplasia bakoitza bere histologiaren arabera aurki daiteke.
b) Taula-zerrendan, neoplasiak kategorietan eta ataletan multzokatzen dira portaeraren arabera.
c) Gongoil zelataria esaten zaio tumore-zelulek aurkitzen duten gongoil handienari.
d) Ezin da egon desadostasunik tumore bati CIE-10-ES sailkapenak esleitzen dion portaeraren eta CIE-O-3.1 sailkapena esleitzen dionaren artean.

73.- CIE-10-ES diagnostikoen sailkapenaren arabera, hautatu neoplasien kodeei buruzko adierazpen zuzena:

a) Neoplasia gaizto primarioa, hasieran non sortu den badakiguna, kategoria bereko egituretara hedatzen bada, bata primario modura kodetu behar da eta bestea sekundario modura.
b) Non sortu den ez dakigun neoplasia gaizto primarioak ondoan atal bereko beste kategoria batzuetako neoplasiak badauzka, neoplasia primarioaren sorburua baino ez da kodetu behar.
c) Gorputzeko toki batean zenbait tumore badaude, baina ez elkarren ondoan, bata primario modura kodetu behar da eta besteak metastasiko modura.
d) Non sortu den ez dakigun neoplasia gaizto primarioak ondoan atal bereko beste kategoria batzuetako neoplasiak badauzka, hura neoplasia primario modura kodetu behar da eta ondokoak metastasiko modura.

74.- CIE-10-ES sailkapenean anemiak hiru ataletan banatzen dira etiologiaren arabera:

a) Eskasia-anemiak / anemia hemolitikoak / anemia aplasikoak eta beste batzuk eta orno-muineko gutxiegitasunaren sindromea.
b) Eskasia-anemiak / anemia hereditarioak / anemia aplasikoak eta beste batzuk.
c) Anemia ferropenikoak / anemia hereditarioak / anemia aplasikoak eta beste batzuk.
d) Anemia hemolitikoak / anemia hereditarioak / orno-muineko gutxiegitasunaren sindromea.

75.- CIE-10-ES, prozedurak; nola kodetzen da laser-prostatektomia?

a) Erresekzioa.
b) Jostura.
c) Erauzketa.
d) Suntsipena.

76.- CIE-10-ES sailkapenean, asma "aldizkakoa" da sintomen maiztasunaren arabera:

a) Astean hiru aldiz edo gehiagotan.
b) Astean bi aldiz edo gutxiagotan.
c) Egunero.
d) Egunean zehar birritan.

77.- 02RG0JZ kodea: "balbula mitrala kendu eta titaniozko balbula ipintzea"; zer adierazten "G" letrak?

a) Kokapen anatomikoa.
b) Sistema organikoa.
c) Prozedura-mota.
d) Abordatzea.

78.- CIE-10-ES, prozedurak; zer dira "xurgatzen ez diren material terapeutikoak"?

a) Gailu sinple eta mekanikoak.
b) Gailu elektronikoak.
c) Mentuak eta protesiak.
d) Inplanteak.

79.- CIE-10-ES, prozedurak; zer da "eskuineko galtzarbeko adenopatiako biopsia PAAF bidez"?

a) Suntsipena.
b) Zatiketa.
c) Erauzketa.
d) Drainatzea.

80.- Wallace-ren 9en araua erreduren hedadura neurtzeko erabiltzen da; horren arabera, zenbatekoa da genitalen eremuaren portzentajea?

a) % 9.
b) % 1.
c) % 2.
d) % 10.

81.- Zer adierazten du "estom-" aurrizkiak?

a) Urdaila.
b) Ahoa.
c) Hestegorria.
d) Diafragma.

82.- Orkatila erreferentzia hartuta, belauna:

a) Proximala da.
b) Distala da.
c) Sabelekoa da.
d) Albokoa da.

83.- Bizkarrezurra erreferentzia hartuta, bularrezurra:

a) Proximala da.
b) Albokoa da.
c) Aurrekoa da.
d) Mediala da.

84.- Gibela:

a) Organo hutsa da.
b) Behazuna sortzen du.
c) Atal hauek dauzka: burua, gorputza eta isatsa.
d) Hipogastrioan dago.

85.- Arnasa botatzean:

a) Barrunbe torazikoaren bolumena handitzen da.
b) Diafragma erlaxatzen da.
c) Diafragma beheratzen da.
d) Saihetsak goratzen dira.

86.- Etzanda gertatzen den disneari nola esaten zaio?

a) Borg-en disnea.
b) Platipnea.
c) Ortopnea.
d) Trepopnea.

87.- Listuko amilasak hauen digestio partziala egiten du:

a) Proteinak.
b) Lipidoak.
c) Aminoazidoak.
d) Glukogenoa.

88.- Bihotzeko aorta-balbula:

a) Balbula sigmoidea da.
b) Sistole bentrikularrean irekitzen da.
c) Ezker-bentrikuluaren eta aorta arteriaren artean dago.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

89.- Ezkerreko bihotz-gutxiegitasunaren sintoma bereizgarria:

a) Neke goiztiarra.
b) Zain jugularra handitzea.
c) Aszitisa
d) Zangoko edema.

90.- Balbula bat ondo ixten ez bada, nola deritzo patologiari?

a) Balbula-atrofia.

b) Balbula-estenosia.
c) Balbula-gutxiegitasuna.
d) Balbula-atresia.

91.- EFMQ autoebaluaziorako gidaliburua kontuan edukita, adierazpen hauetatik zein EZ DA ZUZENA?

a) EFQM bikaintasun ereduak osasun-kudeaketaren inguruko neurri politikoen "kalitatea" edo "bikaintasuna" ebaluatzen du.
b) Erakunde baten autoebaluazioaren bidez haren kudeaketaren, jardunbideen eta emaitzen azterketa orokor eta sistematikoa egiten da.
c) Autoebaluazioak erakusten du nola dagoen erakundearen kudeaketa "une jakin batean".
d) Buruzagi bikainek erakundearen helburua eta ikuspegia garatzen dute eta lortzen laguntzen dute, eta hark luzaroan arrakasta edukitzeko behar diren baloreak eta sistemak garatzen dituzte.

92.- Erakunde bikainen aliantzak eta baliabideak direla eta, Osakidetzaz ari garela, jarduketa-lerro hauetako zein da zuzena?

a) Aliatuak identifikatzea eta baterako planak eta programak sustatzea bezeroekin eta beste erakunde eta enpresa batzuekin.
b) Hornitzaileekin egindako aliantzak hobetzea.
c) Instalazioen eta ekipoen mantentze prebentiboa hobetzea.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

93.- GRD; hautatu zuzena:

a) GRD sistemak paziente bakoitza sailkatzeko behar duen informazioa alta-txostenetik ateratzen da.
b) GRD sistemak paziente anbulatorioak sailkatzen ditu ohiko patologiei buruzko txostenak egiteko.
c) GRD sisteman taldeak eratzeko behar diren datuetako bat ingresatzeko arrazoia da.
d) GRD sistemako taldeak bakarrak eta baztertzaileak dira; beraz, paziente bakoitza GRD talde baten bakarrik egon daiteke.

94.- Estatistika deskribatzailea:

a) Laginen ezaugarriak aztertzen ditu.
b) Ausazko laginen datuak antolatzen ditu taulen eta adierazpen grafikoen bidez.
c) Behaketako datuak aztertzen ditu indize estatistikoen bidez.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

95.- Zer azaltzen dute parametroek?

a) Lagina.
b) Populazioaren ezaugarriak.

c) Zenbatespena.
d) Ausazko laginketa.

96.- Ausazko populazio-laginak besteak baino adierazgarriagoak dira?

a) Ez.
b) Batzuetan bai.
c) Bai.
d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

97.- Ausazko laginketa bakunean nola egiten da aztertu beharreko pertsonen zerrenda?

a) Kide guztiak etiketatzen dira eta laginketa-unitateen zerrenda prestatzen da.
b) Datu-base informatizatua erabiltzen da.
c) Populazioko kideak ausaz hautatzen dira eta aurreikusitako laginaren neurria osatzen da.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

98.- Ausazko laginketa bakunaren abantailak:

a) Erraza da.
b) Erraz ulertzen da.
c) Zerrendan populazio-atal batzuk falta badira, ez dira galtzen ausazko laginketaren onurak.
d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

99.- Zer da laginaren esleipena?

a) Esleipen hoberena, hau da, lagina banatzea.
b) Esleipen-motak: bakuna eta konposatua.
c) Lagina geruzen artean banatzea.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

100.- Barra-grafikoa; zer egon behar da maiztasunak irudikatzen diren eskalaren hasieran?

a) Zenbaki bikoiti bat.
b) Edozein zenbaki.
c) 0 zenbakia.
d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

101.- Nola kalkulatzen da errotazio-indizea?

a) Aldi jakin bateko egonaldien kopurua zatitzen da egun natural bakoitzean baliagarri dauden oheen kopuruaz.

b) Aldi jakin bateko guztirako ingresuen kopurua zatitzen da aldi horretan baliagarri dauden oheen kopuruaz.
c) Aldi jakin bateko egun bakoitzeko oheen kopurua ingresuen kopuruaz zatitzen da.
d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

102.- Adierazleek ezaugarri hauek eduki behar dituzte:

a) Bateragarriak izan behar dira beste adierazle batzuekin, ospitaleen eta zerbitzuen artean alderatu ahal izateko.
b) Ez dira izan behar zehatzak; horrela noiznahiko gertaerak islatuko dituzte.
c) Ez dira baliagarri egon behar; datuak ez dira erraz eskuratu behar.
d) Monitorizatu ezin den jarduera baten berri eman behar dute.

103.- "Dokumentu klinikoak", definizioa:

a) Ematen den arretaren inguruko gertaerak eta datuak erregistratzeko sortzen diren dokumentazio kliniko guztiak.
b) Pazientearen osasunaren eta haren arretaren inguruko gertaera eta datu guztiak erregistratzeko sortzen diren dokumentazio kliniko guztiak.
c) Pazientearen osasunaren inguruko gertaerak eta datuak erregistratzeko sortzen diren dokumentazio kliniko guztiak.
d) Pazientearen anamnesiaren eta beraren proba diagnostikoen inguruko gertaerak eta datuak erregistratzeko sortzen diren dokumentazio kliniko guztiak.

104.- Lehen mailako dokumentuak eta bigarren mailako dokumentuak, hautatu adierazpen zuzena:

a) Lehen mailako dokumentuei bilduma-dokumentuak ere esaten zaie.
b) Lehen mailako dokumentuak jatorrizkoak eta osoak dira.
c) Bigarren mailako dokumentuak jatorrizkoak eta osoak dira.
d) Bigarren mailako dokumentuak inkesten bidez sortzen diren erregistro-txostenak dira.

105.- Historia klinikoa erabiltzeko araudia dela eta, hautatu adierazpen zuzena:

a) Zalantza edo interes-gatazka egonez gero, osasun-erakundearen eskubideak bermatu behar dira.
b) Osasun-datuei ez zaie aplikatzen datuen babesaren legerian ezartzen den babes bereziaren araubide juridiko orokorra.
c) Historia klinikoko datuen informaziorako eskubidea ez da pazientearena.
d) Osasun- zentroaren edo zerbitzuaren titularra den erakundeak historia klinikoak eskuratzeko mekanismoak ezarriko ditu.

106.- Historia klinikoa erabiltzeko araudia dela eta, hautatu adierazpen zuzena:

a) Herritarrek ez dute eskubiderik alegazioak aurkezteko baliabide elektronikoak erabiliz; idatzizko dokumentuak baino ezin dituzte aurkeztu.



b) Herritarrek informazioa eskatu dezakete, baina ezin dute egin kontsultarik.
c) Herritarrek eskubidea dute baliabide elektronikoen bitartez aritzeko osasun-arloko administrazioarekin.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

107.- 41/2002 Legea, azaroaren 14koa; historia klinikoa dela eta:

a) Historia klinikoetan parte hartzen duten profesionalek ezin dute ukatu beren ohar subjektiboak eskuratzeko eskubidea.
b) Pazienteen eskubideak badauka muga bat: ezin dituzte eskuratu beharrizan terapeutikoa (frogatua) dela eta mugatu beharreko datuak. Beharrizana historia klinikoan agertzen da.
c) Pazienteek ezin dute erabili beren eskubidea hirugarren pertsonen historia klinikoen datuen konfidentzialtasunaren kaltetan.
d) b) eta c) zuzenak dira.

108.- Osasun-arloko profesionalek historia klinikoak eskuratzeko prozedura, arreta emateko:

a) Sistemak historia eskuratzea ukatzen badu, eskuratzeko ahalegina ez da erregistratzen.
b) Profesional bakoitzak bere kategoriaren arabera eskuratu ditzake historia klinikoak.
c) Historia klinikoen informazio-sistemek ezin dituzte identifikatu sartzen diren profesionalak.
d) Atzipen guztiak jasota geratzen dira, baina atzipen-ahalegin guztiak ez.

109.- Gutxienez zenbat denbora gorde behar da dokumentazio klinikoa?

a) Hamabost urte osasun-laguntzako jardueraren alta-egunetik kontatzen hasita.
b) Bi urte osasun-laguntzako jardueraren alta-egunetik kontatzen hasita.
c) Bost urte osasun-laguntzako jardueraren alta-egunetik kontatzen hasita.
d) Hamar urte osasun-laguntzako jardueraren alta-egunetik kontatzen hasita.

110.- Dokumentazio klinikoa garbitzea eta suntsitzea direla eta, hautatu adierazpen zuzena:

a) Dokumentu elektronikoak ez dira garbitu behar.
b) Pertsona bat hitzen denetik 5 urte igarotakoan haren dokumentazio klinikoa suntsitzen da.
c) 10 urtetan mugimendurik ez duten historia klinikoak ezabatzen dira.
d) Dokumentazioak garbitzeko prozesuei buruzko aktak egin behar dira.

111.- COVSEDOCen egitekoak:

a) Dokumentazio klinikoa gordetzeko eta garbitzeko lanei buruzko jarraibideak ematea.
b) Osasun-zentroei eta osasun-arloko profesionalei dokumentazio klinikoaren inguruko aginduak ematea.

c) Osasun-arloko eskumena daukan sailari dokumentazio klinikoari buruzko aholkuak ematea.
d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

112.- Dokumentazio klinikoa gordetzea dela eta, hautatu adierazpen zuzena:

a) Dokumentazio klinikoaren tratamenduak ez du eragozten pertsonen nortasunaren berri jakitea.
b) Osasun-zentroen ardura da dokumentazio klinikoa ondo mantenduta gordetzea.
c) Osasun-arloko profesionalak ez dira arduratzen arreta emateko prozesuan dokumentazio kliniko antolatu eta sekuentziala sortzeaz eta mantentzeaz.
d) Banaka lan egiten duten osasun-arloko profesionalak ez dira sortzen duten dokumentazioaren azken arduradunak; administrazio publikoari laga behar diote.

113.- Kalitatea kontrolatzeko eta ebaluatzeko programak edo protokoloak diseinatzeko, jakin behar da:

a) Zer neurtu nahi den; helburuak edo irizpideak.
b) Zer tresna erabiliko diren; adierazleak.
c) Zer balio diren onargarriak; estandarrak.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

114.- Kalitatea kontrolatzeko eta ebaluatzeko programak edo protokoloak diseinatzean, zein da bigarren urratsa?

a) Ebaluaziorako datuen iturriak aurkitzea.
b) Datu-iturri fidagarrienak aurkitzea eta aztertzea, egiaztatzeko ba ote gauden aurretik onargarritzat jotako mailaren barruan.
c) Maila onargarria ez bada, hobekuntza-ekintzak abian ipini behar dira.
d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

115.- Gehien erabiltzen diren fitxategi-motak direla eta, hautatu adierazpen zuzena:

a) Eremu bakar batean biltzen dira.
b) Sailkapenetako bat: zentralizatuak eta deszentralizatuak.
c) Dokumentalistak ez dira ados jartzen artxibo zentralizatuen egokitasunaz.
d) Ospitaleetan, eraikin bakoitzean espezialitate bat lantzen da eta bere artxiboa sortzen da.

116.- Artxibo zentralizatuaren abantailak:

a) Kostuak txikitzen ditu eta lekua aurrezten du.
b) Artxibo segurua eta efizientea da, eta errendimendu handikoa.
c) Dokumentuak ospitaleko leku guztietatik eskuratu daitezke noiznahi.
d) Ez du aukerarik ematen prozedurak estandarizatzeko eta protokolizatzeko.

117.- Artxibo misto edo departamentala; hautatu adierazpen zuzena:

a) Honelako artxiboetan, ospitale bateko historia klinikoak irizpide bateratuen arabera gordetzen eta zenbatzen dira.
b) Artxibo periferikoak dira, kanpo-kontsultetakoak; pazienteen historia klinikoak biltzen dituzte.
c) Historia klinikoak ez dira inoiz itzultzen artxibo zentralera.
d) a) eta b) zuzenak dira.

118.- Artxibatzeko metodoak direla eta, hautatu adierazpen zuzena:

a) Dokumentuak artxibatzeko era asko daude; esaterako: sailkapen sekuentziala (gutxien erabiltzen dena).
b) Amaierako digituaren araberako sailkapena: historia klinikoak ezkerreko digituen arabera identifikatzen dira.
c) Artxibo bakoitzean bertako beharrizanen eta baliagarri dagoen espazioaren arabera sailkatu daitezke dokumentuak.
d) Azken bi digituen araberako sailkapena: artxiboa 1.000 ataletan banatzen da (00 - 999), eta horrela 100.000 erregistro egin daitezke.

119.- Azken bi digituen araberako sailkapenaren onurak:

a) Lanak azkar eta zehaztasunarekin egiten dira, eta artxibatzeko denbora % 50 inguru laburtzen da.
b) Erroreak % 40 murrizten dira.
c) Lana modu ekitatiboagoan banatu daiteke langileen artean: denek lan-karga bera.
d) Aktibo ez dauden historiak kentzen direnean, atal guztietan sortzen dira hutsuneak, baina desberdinak.

120.- Historia kliniko elektronikoak direla eta, hautatu adierazpen zuzena:

a) Historia klinikoak paperean egitea prozesu zaharkitua da.
b) Gaur egun, ez da historia kliniko berririk irekitzen paperean.
c) Artxiboaren egitekoetako batzuk historia klinikoak irekitzea, mailegatzea eta itzultzea izan dira; horiek erabat desagertuko dira historia kliniko elektronikoekin.
d) a) eta c) zuzenak dira.

121.- Historia klinikoak mailegatzeko prozesuko kontrol-adierazleaak:

a) Eraginkortasun-indizea.
b) Segurtasun-indizea.
c) Sekuentziatu gabeko historia klinikoen kontrol-indizea (%).
d) Larrialdietako historia klinikoen kontrol-indizea.

122.- Txarto artxibatutako historia klinikoen kokapena; hautatu adierazpen zuzena:

a) Artxibo klinikoetan gutxitan gertatzen da historia bat txarto artxibatzea.
b) Ez dago metodorik ez prozedurarik ezarrita historia klinikoak berreskuratzeko.
c) Bilaketak egiteko metodoetako bat izan daiteke egiaztatzea historia ez dagoela ondoko karpetetan.
d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

123.- Hauetatik zein da sistema eragilea?

a) GNU/LINUX.
b) WINDOWS.
c) UNIX.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

124.- Calc (libreOffice) edo Excel (Microsoft) kalkulu-orrietako formula-barra izenaren koadroan:

a) Gela aktiboaren erreferentzia agertzen da, hau da, letra bat (zutabea adierazten duena) eta zenbaki bat (lerroarena).
b) Gela aktiboaren erreferentzia agertzen da, hau da, letra bat (lerroa adierazten duena) eta zenbaki bat (zutabearena).
c) Formulak sartzen dira eta gela aktiboaren edukia editatzen da.
d) Gela-barrutiaren izena baino ez da agertzen.

125.- Writer (LibreOffice) edo Word (Microsoft) testu-prozesadoreetan, zer egiten du Ctrl+E laster-teklak?

a) Aurretik kopiatutako testua itsatsi.
b) Testu guztia hautatu.
c) Aurretik hautatutako testua ebaki.
d) Kurtsorea dagoen paragrafoa hautatu.

126.- Writer (LibreOffice) edo Word (Microsoft) testu-prozesadoreetan, zer fitxatan daude dokumentua gordetzeko komandoak?

a) Txertatu fitxan.
b) Fitxategia fitxan.
c) Tresnak fitxan.
d) Formatua fitxan.

127.- Informazio-sistemetan, zer da osasun-adierazlea?

a) Datuak tratatzeko modu bat.
b) Datuak biltzeko modu bat.
c) Datuak egiaztatzeko eta editatzeko modu bat; helburua akatsak zuzentzea da.

d) Datu kliniko bat.

128.- Osasunaren arloko informazio-sistemetan, zer da SNOMED?

a) Mezularitza-estandarra; osasunaren arloko informazioa trukatzearekin, integratzearekin eta berreskuratzearekin lotuta dago.
b) Munduko termino kliniko estandarren bilduma integral zabalena eta zehatzena; hizkuntza askotan egina eta kodetuta dago.
c) Morbilitatearen kodeen estandarra.
d) Osasun-arloko datu-baseen estandarra.

129.- Ospitaleratzeei buruzko DGOMean zenbait adierazle erabiltzen dira. Zer datu biltzen dira "adierazle klinikoen" taldean?

a) Diagnostiko nagusia eta bigarren mailakoak, prozedura kirurgikoak, diagnostiko morfologikoak.
b) Ospitalearen kodea, historia klinikoaren zenbakia, PIK, probintzia, jaioteguna, sexua.
c) Kontaktu-mota, data, ingresu-mota, alta-mota, finantzaketa-erregimena, esku-hartzearen data, zerbitzua, eskaera.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

130.- Nazioarteko CIAP-2 sailkapenaren oinarria:

a) 3 karaktereko kodea; lehenengo karakterea kapituluari dagokion letra da (15 kapitulu daude guztira). Kode bakoitzak kode baliokidea dauka CIE-10 sailkapenean.
b) 3 karaktereko kodea; lehenengo karakterea kapituluari dagokion letra da (17 kapitulu daude guztira). Kode bakoitzak kode baliokidea dauka CIE-10 sailkapenean.
c) 4 karaktereko kodea; lehenengo karakterea kapituluari dagokion letra da (17 kapitulu daude guztira). Kode bakoitzak kode baliokidea dauka CIE-10 sailkapenean.
d) 3 karaktereko kodea; lehenengo karakterea kapituluari dagokion letra da (17 kapitulu daude guztira). Kodeek ez daukate kode baliokiderik CIE-10 sailkapenean.

131.- Eman dezagun biopsia bat egin ondoren behin betiko prozedura bat egingo dela, esaterako biopsia egin den atala suntsitu, zatitu edo erresekzioa egin; zer prozedura kodetu behar da?

a) Biopsia baino ez.
b) Biak: biopsia eta behin betiko tratamendua.
c) Behin betiko tratamendua soilik.
d) Behin betiko tratamendua, diagnostiko nagusiaren ondorioz egiten bada.

132.- Egitura tubularren kodeak: nola kodetzen da sistema organiko bateko zenbait kokapen anatomiko ikuskatzea?

a) Egitura tubular bakoitzari bere kodea ezarri behar zaio.
b) Egitura proximalena kodetu behar da.
c) Egitura distalena kodetu behar da.
d) Egitura handiena kodetu behar da.

133.- Tubularrak EZ diren egituren kodeak: nola kodetzen da sistema organiko bateko zenbait kokapen anatomiko ikuskatzea?

a) Egitura bakoitzari bere kodea ezarri behar zaio.
b) Egitura proximalena kodetu behar da.
c) Egitura distalena kodetu behar da.
d) Miatutako egitura guztien multzoaren egitura kodetu behar da.

134.- Zer eremu edo organo miatzen da laparoskopiarekin?

a) Urdaila, gibela eta sabelaldeko beste organo batzuk.
b) Umetokia, obarioak eta Falopioren tronpak.
c) Uzkia, ondestea eta kolon sigmoidea.
d) a) eta b) zuzenak dira.

135.- Prozedura obstetrikoak "sorkuntzako produktuei" aplikatzen zaizkie; zein dira produktu horiek?

a) Ernaldu gabeko obulua.
b) Ernaldutako obulua.
c) Ernaldutako obuluaren mintz guztiak.
d) b) eta c) zuzenak dira.

136.- Botikekin lotutako zeinu eta sintoma patologikoak azaldu dira. Hartu beharreko botika bat errezetatu ez bada edo aginduan edo botika ematean akatsen bat gertatu bada, zer gertatu da?

a) Intoxikazioa edo pozoidura.
b) ROM.
c) RAM.
d) Interakzio farmakologikoa.

137.- Nola esaten zaio lesio baten ondorioari?

a) Kontrako efektua.
b) Ondorio berantiarra.
c) Sekuela.
d) Kontusioa.

138.- Eskuratu daitezke historia klinikoak arreta emateko ez beste zerbaitetarako?

a) Ez.
b) Bai.
c) Bai, baina arrazoia ondo frogatuz gero bakarrik.
d) b) eta c) zuzenak dira.

139.- Botika bat ondo errezetatu eta eman ondoren harekin lotutako toxikotasuna agertzen bada, nola esaten zaio?

a) Intoxikazioa edo pozoidura.
b) ROM.
c) RAM.
d) Interakzio farmakologikoa.

140.- Barra-grafikoa: koordenatu-ardatzen sistemetan, non adierazten dira datuak?

a) Ardatz horizontalean (abzisa-ardatza) maiztasunak adierazten dira.
b) Ardatz bertikalean (ordenatu-ardatza) aldagaiaren kategoriak adierazten dira.
c) Ardatz bertikalean (ordenatu-ardatza) maiztasunak adierazten dira.
d) Aurreko erantzunetatik bat ere ez da zuzena.

141.- Hagaxka-diagrama; ezaugarriak:

a) Barra-diagramaren aldaera da; hura bezala egiten da.
b) Aldagai kualitatibo ordinalak edo aldagai kuantitatibo diskretuak irudikatzeko erabil daiteke.
c) Modalitate asko egonik, aldagai jakin bat eta beraren joera behatu nahi direnean erabiltzen da.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

142.- CIE-10-ES sailkapenaren arabera, “erresekzioa” prozeduraren kodean zer agertzen da 3. posizioan?

a) T.
b) B.
c) 6.
d) 5.

143.- CIE-10-ES sailkapenaren arabera, obstetrizia ataleko prozedura guztien kodeen hasieran zenbaki hau dago:

a) 11
b) 12
c) 10
d) 13

144.- CIE-10-ES sailkapenaren arabera, zer da "oin-zolako garatxoaren krioterapia"?

a) Ezabatzea.
b) Zatiketa.
c) Erresekzioa.
d) Suntsipena.

145.- Zer da elektroentzefalograma?

a) Prozedura diagnostiko kirurgikoa.
b) Prozedura diagnostikoa, kirurgia gabekoa.
c) Prozedura terapeutiko kirurgikoa.
d) Prozedura terapeutikoa, kirurgia gabekoa:

146.- EFQM ereduan agente-irizpideetako batek 4 azpiirizpide dauzka; zein da?

a) Lidergoa.
b) Pertsonak.
c) Estrategia.
d) Prozesuak.

147.- EFQM sarian, 2 irizpidek ematen dute puntuazio-portzentajerik handiena (% 15 bakoitzak); zeintzuk dira?

a) Lidergoa eta Prozesuak.
b) Emaitzak bezeroen arloan eta Emaitza nagusiak.
c) Prozesuak eta Emaitzak bezeroen arloan.
d) Lidergoa eta Emaitza nagusiak.

148.- EFQM ereduko "REDER" matrizearen bidez ereduaren irizpideen analisi zorrotza egiten da. Hauetako zein EZ da matrize horren atributua?

a) Ikuspegia.
b) Hedatzea.
c) Planteamendua.
d) Ebaluatzea, berrikustea eta hobetzea.

149.- Zenbat karaktere dauzka ASCII kodeak (American Standard Code For Información Interchange)?

a) 145
b) 147
c) 255
d) 256

150.- Gorputzeko zer tokitan dago ilargi-hezurra?

a) Karpoan.
b) Eskuan.
c) Eskumuturrean.
d) Metakarpoan.

151.- Zer izen dauka urdaileko esfinter distalak?

a) Kardia.
b) Piloroa.
c) Oddi-ren esfinterra.
d) Zistikoa.

152.- Pankrea hormonen jarioarekin lotuta dago. Hori dela eta, hautatu adierazpen zuzena:

a) Glukagoia eta intsulina jariatzen ditu.
b) Somatostatina jariatzen du.
c) a) eta b) zuzenak dira.
d) Basopresina jariatzen du.

153.- DGOM erregistroko "ZIUko egonaldia" aldagaia dela eta, unitate hauetako zein EZ da zainketa intentsiboen unitatea?

a) Erredura handietako unitatea.
b) Jaioberrien zainketa intentsiboak.
c) Koronarioen Unitatea.
d) Ebakuntzaondoko bizkorketa.

154.- AE-DGOM erregistroko "POA markatzailea" aldagaia dela eta, hautatu adierazpen zuzena:

a) Bigarren mailako diagnostikoetan baino ez da erregistratu behar.
b) Diagnostiko nagusiaren kodea "S" da beti.
c) Aldagai honek 5 kode desberdin dauzka.
d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

155.- AE-DGOM erregistroan, zenbat diagnostiko erregistratu daitezke episodio bakoitzeko?

a) 30.
b) 31.
c) 25.
d) 26.

156.- Pertsona bat kanpoko zenbait erredurarekin heltzen bada, zein izango da diagnostiko nagusia?

a) Erredura mingarriena.
b) Sekuelarik handiena utziko duen erredura.
c) Erredura zabalena.
d) Gorengo mailako erredura.

157.- Haurdunaldiko diabetesari buruzko adierazpen hauetatik zein da zuzena?

a) Haurdunaldiko diabetesaren kodea O24.4 azpikategorian dago (Haurdunaldiko diabetes mellitusa); haurdunaldian, erditzean eta puerperioan erabil daiteke, O24 kategoriako (Diabetes mellitusa) beste kode batzuekin batera.
b) Tratamendua dieta egitea eta intsulina hartzea bada, bi kodeak ipini behar dira, zehaztasuna hobetzeko.
c) Haurdunaldiko diabetesak ez du eragiten haurdunaldiaren ondoren diabetesa jasateko arriskua.
d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

158.- Zenbat astez jotzen da akututzat miokardio-infartua?

a) Lau.
b) Zortzi.
c) Hiru.
d) Bost.

159.- Biopsia hauetako bat <u>EZ</u> da kodetzen eszisio modura?

a) Urdaileko biopsia endoskopia bidez.
b) Endometrioko biopsia legratu bidez.
c) Bularreko biopsia estereotipikoa.
d) Arteria tenporaleko biopsia larruazalean zehar.

160.- Nolako prozedura da "egitura anatomiko batetik substantzia solido bat erauztea edo suntsitzea"?

a) Erauzketa.
b) Ateratzea.
c) Eszisioa.
d) Zatitzea.

161.- Umetokiko arteria baten enbolizazioa, mioma baten baskularizazioa ezabatzeko; nola kodetzen da?

a) Oklusioa.

b) Deribazioa.
c) Murrizketa.
d) Transferentzia.

162.- CIE-10-ES sailkapenean erredurak korrosio modura kodetzen dira eragilea...

a) ...sua denean.
b) ...elektrizitatea denean.
c) ....erradiazioa denean.
d) ...azidoa denean.

163.- GIB + den pertsona bat infekzio-zeinuekin ingresatu dute. Diagnostikoa pneumocistis carinii onddoak eragindako pneumonia izan da. Hautatu sekuentzia egokia:

a) B59 Neumozistosia + B20 Giza immunoeskasiaren birusaren (GIB) gaixotasuna.
b) B20 Giza immunoeskasiaren birusaren (GIB) gaixotasuna + B59 Neumozistosia.
c) Z21 Giza immunoeskasiaren birusak (GIB) eragindako sintomarik gabeko infekzioa + B59 Neumozistosia.
d) B59 Neumozistosia + Z21 Giza immunoeskasiaren birusak (GIB) eragindako sintomarik gabeko infekzioa.

164.- Zenbat karaktere edukitzen dituzte prozedurek?

a) Beti 7.
b) 6 - 7 bitartean.
c) 3 - 7 bitartean.
d) 4 - 7 bitartean.

165.- APR GRD sailkapena dela eta, hautatu adierazpen zuzena:

a) APR-GRD sailkapeneko “470” kodeak adierazten du episodioak ezin direla taldekatu. Hauxe da arrazoia: informazioa (kodea) ez da baliozkoa edo ez dago.
b) APR-GRD sailkapeneko talde batzuetan konplikazioak edo komorbilitateak handiagoak dira eta beste batzuetan txikiagoak.
c) APR-GRD taldeak AP-GRD taldeekin eratzen dira.
d) Orokorrean, APR-GRD taldeen pisua AP-GRD taldeena baino handiagoa izaten da.

166.- ACG (adjusted clínical group) sailkapen-sistema dela eta, hautatu <u>ZUZENA EZ DEN:</u> adierazpena:

a) Diagnostikoak ADG taldeetan sailkatzen dira pazientearen adinaren arabera.
b) Diagnostikoak ADG taldeetan sailkatzen dira larritasunaren arabera.
c) Urtero, paziente bakoitza ACG talde bakar batean izaten da.
d) a), b) eta c) ez dira zuzenak.

167.- SNOMED CT; hautatu <u>ZUZENA EZ DEN</u> adierazpena:

a) Oinarrizko unitate semantikoa kontzeptua da. Oinarrizko beste osagai batzuk daude: deskribapenak eta erlazioak.
b) Kontzeptu bakoitzak zenbakizko identifikatzaile bakarra dauka.
c) Anatomia patologikoan erabiltzen den terminologia kliniko bakarra da.
d) SNOMED CT-n 310.000 kontzeptu aktibo baino gehiago daude.

168.- Badago tresna bat CIE 9 MC eta CIE-10-ES sailkapenetako kodeen arteko korrespondentziak errazten dituena; zein da?

a) SNOMED.
b) GEM.
c) CPT 4.
d) CMA.

169.- Haurdunaldiaren eta erditzearen kronologia dela eta, hautatu adierazpen zuzena:

a) Erditzea garai ostekoa da haurdunaldia 42 aste baino gehiago luzatuz gero.
b) Erditzea garaikoa da haurdunaldiko 37. astetik 40. astera bitartean gertatuz gero.
c) Erditzea luzea da haurdunaldiak 40 - 42 aste bitartean iraunez gero.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

170.- Pertsona bat shock septikoarekin ospitaleratu dute. Hauxe izan da diagnostikoa: E. Colik eragindako gernubideetako infekzioaren ondoriozko sepsia. Zein da diagnostiko nagusia?

a) Shock septikoa.
b) Sepsia.
c) Gernu-infekzioa.
d) E. Coli-k eragindako gernubideetako infekzioa.

171.- Zer da pronazioa?

a) Gorputz-adar bat gorputzetik urruntzea.
b) Egitura baten kanpo-biraketa.
c) Gorputz-adar bat tolestea, angelua txikituta.
d) Esku-ahurra lurrera begira ipintzea.

172.- Non dago apofisi klinoidea?

a) Atlasean.
b) Axisean.
c) Goiko masailezurrean.
d) Beheko masailezurrean.

173.- Hauetako bat <u>EZ</u> da giltzurrunaren funtzioa:

a) Metabolismoaren hondakinak egoztea.
b) Homeostasia erregulatzea.
c) Errenina jariatzea arteria-presioa erregulatzeko.
d) PTHa jariatzea kaltzioa birxurgatzeko.

174.- Zer da alotrasplantea?

a) Genetikoki berdinak diren indibiduoen arteko trasplantea.
b) Espezie bereko indibiduoen arteko trasplantea.
c) Hartzailea eta emailea pertsona bera izatea.
d) Bi espezieren arteko trasplantea.

175.- Pertsona bat ospitaleratzean, zantzuak eta zeinuak diagnostiko nagusiak izan daitezke, kasu honetan <u>IZAN EZIK:</u>

a) Sintomek asistentzia-arazo handia eragiten dute eta hala erregistratzen dira; gainera, sintomak zerk sortu dituen adierazten da.
b) Ezin da heldu diagnostiko zehatzago batera, nahiz eta pazientea aztertu.
c) Pazientea beste zentro batera bideratu da, miatzeko edo tratamendua emateko, diagnostikoa zehaztu aurretik.
d) Pazienteak bere jarraipena eten du, diagnostikoa egin gabe dagoela.

176.- Glasgowko koma-eskala dela eta, hautatu adierazpen zuzena:

a) Garuneko traumatismoetan, kode gehigarri modura erantsi behar da.
b) IKTUSetan edo IKTUSen sekueletan gehitu behar da.
c) Nerbio-sistema zentralean eragina duten infekzio edo intoxikazioetan ez da gehitu behar.
d) a) eta b) zuzenak dira.

177.- Glasgowko eskala dela eta, adierazpen hauetatik zein EZ DA ZUZENA?

a) Gutxienez, pertsona zentroan onartzen denean ageri den puntuazioa adierazi behar da.
b) Seigarren karaktereak adierazten du noiz egin den miaketa.
c) “O” letrak begien irekidura esan nahi du, “V” letrak hitzezko erantzuna eta “M” letrak erantzun motorra.
d) Puntuazio globala bakarrik edukiz gero, R40.24 erabili behar da.

178.- APR GRD talde hauetako zein ez dago CDM 0 kategorian?

a) 950.
b) 1.
c) 6.
d) 949.

179.- Zainketa intentsiboen unitateetan bakarrik erabiltzen den pazienteen sailkapena?

a) APACHE II.
b) CHARLSON.
c) APG.
d) DS.

180.- Prozeduren sailkapena:

a) CIAP
b) CIAPSAP-2
c) CPT4
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

181.- Itxaron-zerrendan ematen den denbora egunetan edo hiletan neurtu daiteke. Hiletan neurtzeko, egunen kopurua k konstanteaz zatitu behar da; zer balio du konstante horrek?

a) 30.
b) 30.32.
c) 30.42.
d) 30.52.

182.- Zer motatako ordenaziotakoa da "JOSA 0 875923" sekuentzia?

a) Sekuentziala.
b) Numerikoalfabetikoa.
c) Alfabetikonumerikoa.
d) OTI motakoa.

183.- Lanbideratzeko baliabideen artean, zerbitzuak edo erakunde hauetatik zeintzuk dira pribatuak?

a) Aldi baterako laneko enpresak.
b) Enbaxadak eta kontsuletxeak.
c) Gazteen informazio-zentroak.
d) Aurreko zentro guztiak pribatuak dira.

184.- Informatikan, zer da WYSIWYG bisualizazioa?

a) Datu-base baten gakoa.
b) Testuak prozesatzeko sistema eragilea.
c) "Ikusten duzuna inprimatuko da" erako inprimatze-sistema.
d) Modem baten bidez erabiltzen diren zerbitzuen multzoa.

185.- Prozedura hauetako batek EZ du aldatzen gorputzeko organo tubular baten diametroa edo ibilbidea; zein da?

a) Transferentzia.
b) Murrizketa.
c) Oklusioa.
d) Deribazioa.

186.- Zer da KTG?

a) Kapazitate Totalaren Gradientea.
b) Kardiotokografia.
c) Kalitate Totalaren Gestioa.
d) Hazkunde-hormona.

187.- Historia klinikoak direla eta, adierazpen hauetatik zein da zuzena?

a) Pertsona bakoitzak bere historia klinikoko agiri guztietako informazioa eskuratu dezake.
b) Historia klinikoetan parte hartzen duten profesionalek ukatu egin dezakete pazienteek beren ohar subjektiboak eskuratzea.
c) Ikuskaritza sanitarioak pazienteen historia kliniko osoak eskuratu ditzake.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

188.- Hauetako zein da dokumentu klinikoa?

a) Alta-txostena.
b) Baja-partea.
c) Ospitale-garraioaren eskabidea.
d) a), b) eta c) ez dira dokumentu klinikoak.

189.- Osasun-dokumentu administratiboen egitura dela eta, hautatu ZUZENA EZ DEN adierazpena:

a) Hartzailearen identifikazioa goialdean agertzen da, eskuinaldean.
b) Dokumentu horien orientazioa bertikala da beti.
c) Dokumentuen kopiak beste kolore batzuetan egiten dira, okerrekoak ez emateko.
d) a) eta b) erantzunak ez dira zuzenak.

190.- Errezeta medikoa dela eta, hautatu adierazpen zuzena:

a) Agiri mediko-legala da.
b) Abenduaren 17ko 1718/2010 Errege Dekretuak arautzen du.
c) Bi motatakoak daude: osasun-sistema publikokoak eta osasun-zentro pribatuetakoak.

d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

191.- “Erditze-txostena” dokumentuan EZ da aipatzen:

a) Zer teknika erabili den.
b) Zenbat iraun duen eta izan diren gorabeherak.
c) Jaioberriari buruzko daturik.
d) Bizi-konstante monitorizaturik.

192.- Azken digituaren arabera artxibatzeko metodoa:

a) Hona adibide bat: 12245 - 12345 - 12445.
b) Hona adibide bat: 11345 - 12345 - 13345.
c) Azken bi digituen araberako metodoaren aldaera da.
d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

193.- Prozesu teknologiko baten bitartez elektronikoa ez den euskarri batean dagoen dokumentua fitxategi elektroniko bihur daiteke (bat edo batzuk); nola du izena?

a) Indexazioa.
b) Digitalizazioa.
c) Eskaneatzea.
d) Berreskuratzea.

194.- Adierazle batek artxiboan aurkitutako historia klinikoen kopuruaren eta aurkitu nahi izan direnen kopuruaren arteko erlazioa islatzen du; zein da?

a) Errentagarritasun-indizea.
b) Segurtasun-indizea.
c) Eraginkortasun-indizea.
d) Efizientzia-indizea.

195.- Hautatu dokumentazioa garbitzeari buruzko adierazpen zuzena:

a) 41/2002 Legeak ezartzen du zer dokumentu garbitu behar diren autonomia-erkidego guztietan arauzko denbora pasatutakoan.
b) Dokumentuak garbitzeko lanetako bat artxiboa araztea da.
c) Dokumentazioa garbitzea da historia klinikoetako dokumentu batzuk suntsitzea, hain zuzen ere ospitaleko araudiaren arabera suntsitu daitezkeenak.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

196.- Hautatu adierazpen zuzena:

a) Eman gabeko historia klinikoen kontrol-indizea % 5etik beherakoa bada, eskaintzen den zerbitzua ez da egokia.
b) Mailegatutako historia klinikoen itzulketa-indizea 1 - 3 artekoa izan behar da.
c) Historia klinikoen presazko maileguen kontrol-indizea % 10etik gorakoa bada, zentroaren pazienteen kontrola egokia da.
d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

197.- Historia klinikoen ausazko laginen tekniken bidez:

a) Txarto artxibatutako historia klinikoak identifikatzen dira.
b) Bikoiztutako historia klinikoak detektatzen dira.
c) Mailegatu eta itzuli gabeko historia klinikoak detektatzen dira.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

198.- Artxibo-mota batek artxibatzeko kostuak murrizten ditu; zein da?

a) Artxibo mistoa.
b) Artxibo zentralizatua.
c) Artxibo deszentralizatua.
d) Kanpoko artxiboak.

199.- Zer irizpideren arabera taldekatzen dira pazienteak GRDetan?

a) Patologiaren konplexutasuna eta batez besteko egonaldia.
b) Ezaugarri klinikoak eta patologiaren konplexutasuna.
c) Ezaugarri klinikoak eta baliabideen kontsumoa.
d) Patologiaren konplexutasuna eta baliabideen kontsumoa.

200.- Ospitalizazio-episodio bat GRDn sailkatzeko <u>EZ</u> da behar informazio hau:

a) Sexua.
b) Adina.
c) Bizilekuaren posta-kodea.
d) Diagnostiko nagusia.

201.- DGOMren helburuak:

a) Estatu osoko osasun-arloko estatistikak egiten laguntzea.
b) Hauen berri jakitea: arreta espezializatuko zentroetako asistentzia-eskaria eta gaixotze-tasa.
c) Ikerkuntza kliniko-epidemiologikoa eta osasun-zerbitzuak eta osasun-emaitzak ebaluatzeko azterlanak sustatzea.
d) a), b) eta c) ez dira DGOMren helburuak.

202.- Ospitaleko altaren DGOM; hauetako zein EZ da horko aldagaia?

a) OTI.
b) ZIUko egonaldiko egunak.
c) Ingresua eragin duen diagnostikoa.
d) Beste ospitale batera eraman den eguna.

203.- DGOMren edukia dela eta, hautatu adierazpen zuzena:

a) Autonomia-erkidegoek ezin dute gehitu araudian aipatzen ez den daturik.
b) Beharrezkoa izanez gero, sinesteei edo erlijioari buruzko datuak gehitu daitezke.
c) Aldagaietako bat finantzaketa-erregimena da.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

204.- Hauetako bat EZ da DGOMren "kontaktu-mota" aldagaiaren kategoria:

a) Ospitalizazioa.
b) Etxeko ospitalizazioa.
c) Kanpo-kontsultak
d) Larrialdiak.

205.- Aorta abdominalaren adarrak:

a) Arteria iliakoak.
b) Kaba arteriak.
c) Beso-arteriak.
d) Arteria koronarioak.

206.- Pazienteak sailkatzeko sistema batean talde homogeneoak eratzen dira ospitaleko zainketa egokiaren prozesuaren arabera; zein da?

a) RUG.
b) DS.
c) PMC.
d) APACHE.

207.- Prozesu aktibo baten ondorioz organo edo ehun bateko odol-bolumena handitzen da; nola deritzo?

a) Kongestioa.
b) Hantura.
c) Hiperemia.
d) Edema.

208.- Haurdunaldiko bigarren hiruhilekoa:

a) 14+1 astetik 28+0 astera.
b) 14+0 astetik 27+6 astera.
c) 13+6 astetik 28+0 astera.
d) 13+6 astetik 27+6 astera.

209.- Lurzoruarekiko perpendikularra den plano batek bitan zatitzen du gorputza: sabelaldea eta bizkarraldea; nola esaten zaio?

a) Sagitala.
b) Frontala.
c) Luzetarakoa.
d) Zeharkakoa.

210.- Medikuntzan, "eskasia" adierazten duen aurrizkia:

a) Poli-.
b) Mikro-.
c) Oligo-.
d) Braki-.

211.- Zer da giltzurrun-hiloa?

a) Giltzurruna estaltzen duen mintza.
b) Odol-hodiak giltzurrunean sartzen diren tokia.
c) Kanporatu aurretik gernua biltzen den giltzurruneko eremua.
d) a), b) eta c) ez dira zuzenak.

212.- Prozesu honen bitartez barne-ingurunera itzultzen dira kanporatu behar EZ diren substantzia onuragarriak:

a) Jariatzea.
b) Birxurgatzea.
c) Garraio pasiboa.
d) Iragazketa.

213.- "Ezkerreko gingil tiroideoa erauztea, neoplasia dela eta"; nola kodetzen da prozedura hau?

a) Eszisioa.
b) Erresekzioa.
c) Erauzketa.
d) Ateratzea.

214.- Triple screening-a dela eta, adierazpen hauetatik zein da zuzena?

a) Haurdunaldiko 20. astetik 22. astera bitartean egiten da, fetuak kromosoma-anomaliarik daukan jakiteko.
b) Amaren eta fetuaren artean Rh bateraezintasunik ote dagoen jakiteko egiten da.
c) Jaio aurreko diagnostikoaren barruko teknika inbaditzailea da.
d) a) eta c) zuzenak dira.

215.- Zeinu hauetatik zein EZ da sintoma?

a) Disnea.
b) Sukarra.
c) Mina.
d) Zorabioa

216.- Lesio traumatikoetan, zer adierazten du zazpigarren karakterea "D" izateak?

a) Hasierako kontaktua.
b) Ondoko kontaktua.
c) Sekuela.
d) a), b) eta c) ez dira zuzenak.

217.- Tuberkulosia dela eta:

a) Mycobacterium tuberculosis onddoak eragiten du.
b) Mantoux-en probak erreakzio positiboa eraginez gero, R76.12 kodea erabili behar da.
c) Sekuelarik utziz gero, lehenbizi zeinua kodetu behar da eta ondoren kategoria: B90 Tuberkulosiaren sekuelak.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

218.- Zer da epifisiolisia?

a) Epifisiaren suntsipena sendatzeko prozedura.
b) Adineko pertsonek izaten duten haustura patologiko bat.
c) Hazkunde-kartilagoaren haustura. Umeetan bakarrik gertatzen da.
d) Aurreko guztiak oker daude.

219.- Nola esaten zaio guruin-epitelioan hasten den tumore gaiztoari?

a) Kartzinoma.
b) Papiloma.
c) Fibrosarkoma.
d) Adenokartzinoma.



220.- Ondo errezetatu eta emandako botika bat hartu ondoren gaitza agertzen bada, zer gertatu da?

a) MKE.
b) Intoxikazioa.
c) Gaindosia.
d) a), b) eta c) ez dira zuzenak.

221.- Herniorrafia sarearekin; zer da?

a) Osagarria.
b) Konponketa.
c) Ordeztea.
d) Berriz jartzea.

222.- GRD 470 dela eta, adierazpen hauetatik zein da zuzena?

a) Taldekatu ezin diren episodioetarako erabiltzen da.
b) Ez dauka pisurik esleituta.
c) Ingresua eragin duen diagnostikoa oker egon den kasuetarako erabiltzen da.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

223.- Eponimoak edo siglak adierazteko erabiltzen diren zeinuak:

a) [ ]
b) < >
c) ( )
d) “ “

224.- Kodea ezartzeko ezinbestekoa den dokumentua:

a) Orri kliniko-estatistikoa.
b) Anamnesia eta miaketa fisikoa.
c) Proba osagarrien txostenak.
d) Ospitaleko alta-txostena.

225.- Diagnostiko baten kodea bilatzeko hitz edo termino gakoa izan daiteke:

a) Patologiaren izena (esaterako, apendizitisa).
b) Ekintza bat (esaterako, drainatzea).
c) Eponimo bat (esaterako, sortzetiko).
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

226.- Borderline diagnostikoak direla eta, adierazpen hauetako zein EZ DA ZUZENA?

a) Gaixotasunaren aurreko egoera azaltzen dute.
b) Baieztatu modura kodetzen dira.
c) Diagnostiko partzialak dira.
d) Patologiaren kodearekin kodetzen dira.

227.- Prozeduren kodeetan, zer adierazten du bosgarren karaktereak?

a) Gailua.
b) Abordatzea.
c) Prozedura.
d) Kokapen anatomikoa.

228.- Zer ataletakoak dira kodearen hasieran 4 zenbakia duten prozedurak?

a) Neurketa eta monitorizazioa.
b) Gorputzetik kanpoko asistentzia eta euskarria.
c) Kokapena.
d) Obstetrizia.

229.- Laparoskopia bidez egiten diren prozeduren kodeetan zer abordatze adierazten da?

a) Endoskopikoa, larruazalean zeharrekoa: 5. posizioa, 3 karakterea.
b) Endoskopikoa, larruazalean zeharrekoa: 5. posizioa, 4 karakterea.
c) Larruazalean zeharrekoa: 5. posizioa, 4 karakterea.
d) Irekia: 5. posizioa, 0 karakterea.

230.- Kasua: "Koloneko dibertikulitisa; zulatuta dago eta abzesua dago, eta odola dario"; hautatu zuzena:

a) Konbinazio-kodea da.
b) Kode anizkoitza da.
c) Bi diagnostiko aipatzen dira.
d) Bi kode behar dira kasu osoa sailkatzeko.

231.- Kasua: "Paziente seropositiboa; esofagitis kandidiasikoarekin ingresatu dute"; hautatu kode-sekuentzia zuzena:

a) DP: B20, DS: B37.81.
b) DP: Z21, DS: B37.81.
c) DP: B37.81, DS: Z21.
d) DP: B37.81, DS: B20.

232.- Jaioberria ingresatu dute, fetuak ongizatea galdu duelako susmoaren ondorioz zesarea egin ondoren. Azkenean susmoa baztertu da. Diagnostikoaren kodea:

a) DP: O75.0, DS: Z38.01.
b) DP: O75.0, DS: O82.
c) DP: O77.9, DS: O02.1.
d) DP: Z05.3, DS: Z38.01.

233.- Pertsona bat ingresatu dute ibuprofenoaren kontsumo kronikoak eragindako hepatopatia batekin. Kodea:

a) DP: K71.9, DS: T39.311A.
b) DP: K71.9, DS: T39.314A.
c) DP: K71.9, DS: T39.315A .
d) Aurrekoetatik bat ere ez da zuzena.

234.- Pertsona bat ingresatu dute eskuineko bularrean daukan kistea kentzeko. Zein da prozedura egokia?

a) Erresekzioa.
b) Eszisioa.
c) Erauzketa.
d) Ateratzea.

235.- Hezur-muineko biopsia, zer da?

a) Eszisioa.
b) Drainatzea.
c) Ateratzea.
d) Aurrekoetatik bat ere ez da zuzena.

236.- Mikrobioen aurkako botikekiko erresistentzia dela eta, hautatu adierazpen zuzena:

a) MRSA kodean hau agertzen da: Z16, botikekiko erresistentzia.
b) BLEAS antibiotikoekiko erresistentzia daukan infekzioa da; kode konbinatua dauka.
c) Erresistentzia egonez gero, Z16 ipini behar da beti; salbuespena: kode konbinatua badago (MRSA, kasurako), ez da ipini behar.
d) Aurrekoetatik bat ere ez da zuzena.

237.- Neoplasiek ematen duten mina dela eta:

a) Ingresua minak eragiten badu, horixe izango da DP eta eragin duen neoplasia DS.
b) Mina ez da kodetzen, minbiziarekin lotutako sintoma da eta.
c) Mina non dagoen zehaztu behar da.
d) Neoplasiaren sekuela modura kodetu behar da

238.- Prozedura: "Foku arritmogenikoaren ablazioa kateterra erabiliz". Hautatu kode zuzena:

a) 02183ZZ.
b) 02C83ZZ.
c) 02B83ZZ.
d) 02583ZZ.

239.- Kasua: "Pertsona batek diabetes mellitusa dauka, kortikoideak hartu dituelako, behar ez zituela; intsulina eman diote". Hautatu kode zuzena:

a) E09.9, T38.0X5A, Z79.4.
b) T38.0X1A, E09.9, Z79.4.
c) E09.0, T38.0X1A, Z79.4.
d) Aurrekoetatik bat ere ez da zuzena.

240.- I motako diabetes mellitusaren kodeak:

a) E10 eta E11.
b) E09 eta E10.
c) E08 eta E09.
d) E09 eta E11.

241.- Zer da bypassa?

a) Deribazioa.
b) Dilatazioa.
c) Oklusioa.
d) Murrizketa.

242.- MIAren kodea; hautatu ZUZENA EZ DEN adierazpena:

a) Hasieran I21 karaktereak daude; ondokoak, laugarrenak, erasandako arteria adierazten du.
b) Non gertatu den jakin ezean, zehaztu gabeko kokapenaren kodea eman behar zaio: MIA ST segmentuaren igoerarekin (IAMCEST).
c) Miokardioko iskemiak ehunen nekrosia eragiten du.
d) IAMCEST kodeak lehentasuna dauka kokapen anatomikoen aldean.

243.- Prostatako adenokartzinoma daukan pertsona bat ingresatu dute larruazalean zeharreko tratamendu kimioterapikoa hartzeko zain zentraletik:

a) DP: Z51.11 DS: C61 8140/3 PP: 3E03305.
b) DP: C61 DS: Z51.11 PP: 3E03405.
c) DP: Z51.11 DS: C61 8140/3 PP: 3E04305.
d) a), b) eta c) ez dira zuzenak.

244.- Laginketaren azken helburua:

a) Emaitzak populazio osora estrapolatzea estatistika inferentzialaren bidez, populazioaren adierazgarria den lagin batetik abiatuta.
b) Laginaren ezaugarriak deskribatzea.
c) Populazioaren ezaugarriak deskribatzea.
d) Erabakitzea zer datu bilduko den, nola hautatuko diren eta zer ezaugarri edo aldagai aztertuko den.

245.- Aldagai kualitatibo nominala:

a) Datuekin eragiketa matematikoak egiteko aukera ematen du.
b) Balioak nolakotasun edo atributu modura irudikatzen dira.
c) Adibidea: odol-presio sistolikoaren neurketa.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

246.- Esleipen bakuna:

a) Lagin osoa geruza bakoitzeko populazioaren proportziozko zatietan banatzen da.
b) Irizpide errazena eta gomendagarriena da.
c) Bi gauza hartzen ditu kontuan: geruza bakoitzeko populazioa eta desbiderapen estandarraren balioa.
d) Aurreko erantzunetatik bat ere ez da zuzena.

247.- Historia kliniko elektronikoa. 38/2012 Dekretuak, historia klinikoari eta paziente eta osasun-profesionalek dokumentazio klinikoaren arloan dituzten eskubide eta betebeharrei buruzkoak, ezartzen duenez, osasun-profesionalek...

a) ...historia klinikorako sarbidea dute, beharrezkoa denean.
b) ...historia klinikorako sarbidea dute, baina ez betebeharra.
c) ...historia klinikoa eskuratu eta betetzeko eskubidea dute, bai eta betebeharra ere.
d) ...pazientearen baimenarekin baino ezin dute eskuratu historia klinikoa.

248.- Pazienteak bere historia eskuratzeko eskubidez EZIN DA erabili kasu honetan:

a) Behar terapeutikoa egiaztatzen denean.
b) Dokumentu elektronikoa denean.
c) Historiak 5 urte baino gehiago dauzkanean.
d) Profesionalak beharrezkotzat jotzen duenean.

249.- Emantzipatu gabeko 16 urtetik beherako pazienteek beren historia klinikorako sarbide-eskubidea erabili ahal izateko,...

a) ...ez dute inoren baimenik behar.
b) ...gurasoen edo legezko ordezkarien berariazko baimena beharko dute.
c) ...baimena mediku arduradunak eman behar du.

d) Hori ezinezkoa da.

250.- Historia klinikoa eskuratzeak helburu epidemiologikoa badauka, arau orokor gisa,...

a) ...epaile baten baimena beharko da.
b) ...pazientearen adostasuna beharko da beti.
c) ...historia osoa eman behar da.
d) ...pazientearen identifikazio pertsonaleko datuak izaera klinikoko datuetatik bereizi beharko dira.

251.- Historia klinikoen sarreren erregistroan honako datu hauek agertu behar dira gutxienez:

a) Historia eskatu duen zerbitzua eta arrazoia.
b) Profesionalaren identifikazioa, data, ordua eta kontsultatu den atala.
c) Diagnostiko nagusia.
d) Zuzendari medikoaren sinadura.

252.- Historia klinikoaren datuak ezereztea:

a) Berez egiten da, pazienteak eskatuz gero.
b) Egiten denean, datuak berehala ezabatzen dira.
c) Horren ondorioz datuak blokeatzen dira.
d) Datu horiek ezin dira ezereztu.

253.- Artxibo klinikoaren kudeaketa kanporatuz gero, kontratuan bermatu beharko da...

a) ...zaintza fisikoa baino ez.
b) ...datuen babesari buruzko araudia betetzea.
c) ...dokumentazioa urtero ezabatzea.
d) ...dokumentuak nahitaez digitalizatzea.

254.- 15 urtez mugimendurik izan ez duten historia klinikoak suntsitu ahal izango dira, honako kasu honetan izan ezik:

a) Euskarri digitalean daudenak.
b) Zuzendaritza medikoak ez suntsitzeko baimena emanez gero.
c) Osasun-ondorioetarako, ondorio epidemiologikoetarako edo ondorio judizialetarako aipagarria den dokumentazioa.
d) Paperean daudenak.

255.- Kudeaketa Aurreratuaren Ereduan, erakunde aurreratuak epe luzerako ikuspegia eta hau orekatu behar ditu:

a) Berehalako emaitza ekonomikoen presioa.
b) Barruko egituraren egonkortasuna.
c) Antolamenduaren homogeneotasuna.
d) Ingurunearen aldaketetara egokitzeko behar den malgutasuna.

256.- Kudeaketa Aurreratuaren Ereduan, "Bezeroak" elementuan, erakunde aurreratuak hauxe egin behar luke batez ere:

a) Salmenten bolumena maximizatu.
b) Bezeroen fideltasuna bilatu eta balio-ekarpen diferentziala egin.
c) Merkataritza-kudeaketa deszentralizatu.
d) Merkataritza-kudeaketa zentralizatu.

257.- Kudeaketa Aurreratuaren Eredua (2023); egituran elementu hauek daude:

a) Estrategia; Bezeroak; Pertsonak; Gizartea eta Ingurumena; Berrikuntza; Emaitzak.
b) Estrategia; Bezeroak; Lidergoa; Gizartea eta Ingurumena; Berrikuntza; Emaitzak.
c) Gobernantza; Kalitatea; Pertsonak; Digitalizazioa; Jasangarritasuna; Emaitzak.
d) Gobernantza; Kalitatea; Lidergoa; Digitalizazioa; Jasangarritasuna; Emaitzak.

258.- Kudeaketa Aurreratuaren Ereduan, "Pertsonak" elementuaren ardatz nagusia da:

a) Erakundearen zuzendaritza-taldea, besterik ez.
b) Erakundearen gainbegiratzea eta kontrol hierarkikoa.
c) Pertsonen garapena eta asmo partekatua duen proiektu bateko kide izatearen sentimendua sustatzea.
d) Kanpo-aholkularitzako enpresak eskuordetzea.

259.- ISO 9001 arauan oinarritutako kudeaketa-sistemen printzipioen arabera, prozesuetan oinarritutako ikuspegiaren ardatza da:

a) Sail bakoitzeko prozesu bakoitza bereizita kudeatzea.
b) Lotuta dauden prozesuak identifikatzea, ulertzea eta sistema modura kudeatzea.
c) Lehentasuna ematea dokumentu-kontrolari prozesu bakoitzaren hobekuntzaren aldean.
d) Gako-prozesuak bakarrik ikuskatzea.

260.- Ospitale-adierazleetan, zer adierazten du desbiderapen estandarra altua izateak?

a) Datuak batezbestekoaren inguruan biltzen direla.
b) Emaitzen aldakortasuna txikia dela.
c) Balioen aldakortasuna handia dela batezbestekoarekiko.

d) Batezbestekoa ez dela zuzena.

261.- DGOM erregistroan, hauetako zein da osasun-laguntzako jarduera baten datu klinikoa?

a) Historia klinikoaren zenbakia.
b) Esleitutako ohearen zenbakia.
c) Onarpen zerbitzuaren kodea.
d) Alta-uneko diagnostiko nagusia.

262.- Datu-baseetan (Access eta antzekoak), zertarako erabiltzen dira lehen mailako gakoak?

a) Erregistroak automatikoki antolatzeko.
b) Erregistro bakoitzari bere identifikazioa emateko.
c) Kanpoko taulak soilik erlazionatzeko.
d) Txosten automatikoak sortzeko.

263.- Testu-tratamenduko programetan, zertarako erabiltzen dira estiloak batik bat?

a) Dokumentuei formatu bateratu eta egituratua aplikatzeko.
b) Letraren tamaina eskuz aldatzeko.
c) Irudiak automatikoki txertatzeko.
d) Akats ortografikoak zuzentzeko.

264.- Kalkulu-orrietan (Excel eta antzekoak), zer da A1?

a) Erreferentzia erlatiboa.
b) Erreferentzia mistoa.
c) Erreferentzia absolutua.
d) Gelaxka babestua.

265.- GRDak esleitzeko prozesuan honako hauek hartzen dira kontuan batez ere:

a) Diagnostiko nagusia, bigarren mailako diagnostikoak, egindako prozedurak, adina eta alta-mota.
b) Zerbitzu klinikoa, egonaldiaren iraupena eta episodioaren guztirako kostua.
c) Egindako proba diagnostikoen kopurua eta konplexutasuna (medikuaren arabera).
d) Ospitaleko okupazio-maila eta lehentasun asistentziala.

266.- Zein da GRDen helburu nagusia?

a) Gaixotasunak etiologiaren arabera sailkatzea.
b) Klinikoki antzekoak diren eta antzeko baliabide-kontsumoak eragiten dituzten ospitaleko episodioak taldekatzea.
c) CIE-10-ES kodeak ordeztea.
d) Diagnostiko nagusia automatikoki ezartzea.

267.- Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoaren arabera, konfidentzialtasun-eginbeharra:

a) Lan-kontratu mugagabea daukaten langileei baino ez zaie aplikatzen.
b) Amaitu egiten da lan-harremanak azkentzen direnean.
c) Datuen tratamenduan parte hartzen duten guztiei aplikatzen zaie, are harremanak amaitu ondoren ere.
d) Babes bereziko datuei baino ez zaie aplikatzen.

268.- Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoaren arabera, nolakoa izan behar da adostasuna?

a) Ustezkoa, berariaz kontra azaldu ezean.
b) Idatzizkoa beti.
c) Isilbidezkoa osasun-arloan.
d) Askea, espezifikoa, arrazoitu eta zalantzarik gabekoa.

269.- Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoaren arabera, zer dira osasunaren inguruko datuak?

a) Oinarrizko identifikazio-datuak.
b) Administrazio-datu arruntak.
c) Datu-kategoria bereziak.
d) Osasun-arloan tratatu daitezkeen datuak.

270.- Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoaren arabera, tratamenduaren arduradunak:

a) Tratamendu guztien berri eman behar dio DBEBri hasi aurretik.
b) Teknikaren eta antolakuntzaren aldetik tratamendurako egoki diren neurriak aplikatu behar ditu, tratamendua erregelamenduarekin bat datorrela egiaztatzeko.
c) Epaile bati baimena eskatu behar dio hasi aurretik.
d) Bost urte igarotakoan datuak ezabatu behar ditu.

271.- Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko 3/2018 Lege Organikoaren arabera, datuak babesteko ordezkaria nahitaez egon behar da...

a) ....agintaritza eta erakunde publikoetan.
b) ...datu pertsonalak tratatzen dituzten erakunde guztietan.

c) ...50 langile baino gehiago dauden enpresa guztietan.
d) ...osasun-zentro pribatuetan (eta horietan baino ez).

272.- Nola kalkulatzen da ospitaleko batez besteko egonaldia?

a) Guztirako ingresuen kopurua / erabilgarri dauden oheen kopurua.
b) Guztirako egonaldien kopurua / alten kopurua.
c) Guztirako alten kopurua / guztirako egonaldien kopurua.
d) Guztirako ingresuen kopurua / alten kopurua.

273.- Bi ospitaletan batez besteko egonaldia iraupen berekoa da (6 egun), baina batean desbiderapen estandarra askoz handiagoa da. Zer esan nahi du horrek?

a) Bi ospitaletan ingresuen iraupenaren aldakortasuna bera da.
b) Desbiderapen estandar handiena duen ospitaleko egonaldien iraupenaren sakabanatzea handiagoa da.
c) Desbiderapen estandar handiena duen ospitaleko arreta eskasagoa da.
d) Desbiderapen estandar handiena duen ospitaleko batez besteko egonaldia txarto kalkulatu da.

274.- Barra-diagrama (edo zutabe-diagrama):

a) Aldagai hauek irudikatzeko erabil daiteke: aldagai kualitatibo nominalak, aldagai kuasikualitatiboak eta aldagai kuantitatibo diskretuak.
b) Aldagaiaren kategoria edo balio bakoitza barra edo zutabe batean irudikatzen da.
c) Barrak edo zutabeak bereizita agertzen dira.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

275.- Adierazleak:

a) Biltzen den informazioa baloratzeko erabiltzen diren aldagaiak dira.
b) Kalitatea neurtzeko tresnak dira.
c) Osasun-arloko jardueren edo prestazioen kalitatea ebaluatzeko erabiltzen dira.
d) a) eta c) zuzenak dira.

276.- “Okupazio-indizea”:

a) Prozesuaren kalitatearen adierazlea da.
b) Asistentziaren kalitatearen adierazlea da.
c) Emaitzetan oinarritutako adierazlea da.
d) Egituraren kalitatearen adierazlea da.

277.- Zentrorako joeraren neurriak:

a) Batezbestekoa, mediana eta moda.
b) Bariantza, desbiderapen estandarra eta barrutia.
c) Koantilak: pertzentilak, kuartilak, dezilak eta kintilak.
d) Barrutia eta kuartil arteko zabalera.

278.- Dokumentu bat egokia da...

a) ...bilaketaren profila ez datorrenean bat dokumentuaren profilarekin.
b) ...bilaketaren profila bat datorrenean dokumentuaren profilarekin.
c) ...bilaketaren profila bat datorrenean bilaketaren balidazioarekin edo ebaluazioarekin.
d) ...beraren profila bat datorrenean bilaketaren balidazioarekin edo ebaluazioarekin.

279.- Sistema eragileak:

a) Zenbaitek baliabide berak erabiltzeko aukera ematen dute.
b) Hauexek dira nagusietako batzuk: Windows, GNU/Linux, UNIX.
c) Honela sailkatzen dira erabiltzen duten lizentzia-motaren arabera: sistema eragile jabedunak; software librea.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

280.- Writer (LibreOffice) edo Word (Microsoft) moduko testu-tratamenduko programetan, testuak MOZTEKO komando laburra dago:

a) < Ctrl + C >
b) < Ctrl + V >
c) < Ctrl + X >
d) < Ctrl + Shift + V >

281.- Calc (LibreOffice) edo Excel (Microsoft) moduko kalkulu-orrien programetan, gelaxkak:

a) Lan-unitate txikienak dira.
b) Neurriak ezin dira aldatu.
c) Orri batean, denek eduki behar dute formatu bera.
d) Aurreko erantzunetatik bat ere ez da zuzena.

282.- Komunikazio eraginkorra bultzatzeko tresnak:

a) Negoziazio kolektiboa, bitartekaritza eta arbitrajea.
b) Entzute aktiboa, enpatia eta inorgatik txarto ez esatea.
c) Komunikazio formala.
d) Hitz edo esaldi oso teknikoak erabiltzea.

283.- ISO arauak:

a) Nahitaez aplikatzen dira.
b) Era guztietako erakundeei aplikatzen zaizkie.
c) Osagai hauek dauzkate: estandarrak, gidak eta kudeaketa-tresnak.
d) b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

284.- Kanpoko egiaztapen-prozedura erabiltzen da ezarritako kalitate-betekizunak noraino betetzen diren jakiteko. Nola esaten zaio?

a) Ziurtapena.
b) Bikaintasun-zigilua.
c) Akreditazioa.
d) Aurreko erantzunetatik bat ere ez da zuzena.

285.- Historia klinikoen ezaugarrietako baten arabera, "datu guztiak izan behar dira egiazkoak, argiak eta osoak"; zer ezaugarri da?

a) Objektibotasuna.
b) Segurtasuna.
c) Egiazkotasuna.
d) Zilegitasuna.

286.- Zein da historia klinikoen indexazioaren helburua?

a) Dokumentu asko biltzen dituen datu-basea sortzea metadatuak erabiliz.
b) Tokia aurreztea.
c) Dokumentu digitalak azkar eskuratu ahal izatea.
d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

287.- Aireztapen mekaniko inbaditzailea 98 orduz:

a) 5A1955Z.
b) 5A0955Z.
c) 5A1945Z.
d) 5A0945Z.

288.- Kasua: "Pertsona bat Covid-19ak eragindako pneumoniarekin ingresatu dute". Hautatu zuzena:

a) DP. U07.1 DS: J12.82.
b) DP: J12.82 DS: U07.1.
c) DP: J12.9 DS: U07.1.
d) Aurrekoetatik bat ere ez da zuzena.

289.- Zer izen dauka nahasmen mentalen nomenklatura agertzen den eskuliburuak?

a) SNOMED-CT.
b) CIE-O.
c) DSM.
d) RMOP.

290.- CIAP-2 dela eta, adierazpen hauetatik zein da zuzena?

a) Prozedura kirurgikoak kodetzeko sistema da.
b) Kodearen hasieran letra bat dago beti, hain zuzen ere sistema organikoari dagokiona.
c) 17 kapitulu dauzka; kapitulu bakoitzak oinarrizko hiru osagai dauzka: kontsultaren arrazoia, arreta-prozesua eta osasun-arazoak.
d) b) eta c) zuzenak dira.

291.- Ausazko laginketa:

a) Ikertzailearen partzialtasuna (kontzientea zein inkontzientea) eragozten lagineko unitateak hautatzean.
b) Gainerako laginek ausaz biltzen direnek baino hobeto adierazten dute aztertutako populazioa.
c) Hautagai (lagineko unitate) bakoitzak laginerako hautatzeko probabilitate jakina dauka.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

292.- Sare lokala (LAN):

a) Osagaiak: hardwarea eta softwarea.
b) Zenbait ordenagailu eta periferiko elkarri lotuta eratzen da.
c) Osasun-zentroetan ordenagailu pertsonalak eta lantegiak konektatzeko aplikazio erabiliena da.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

293.- 38/2012 Dekretuak, historia klinikoari eta paziente eta osasun-profesionalek dokumentazio klinikoaren arloan dituzten eskubide eta betebeharrei buruzkoak, ezartzen duenaren arabera, zein da historia klinikoaren helburu nagusia?

a) Pazientearen erregistro administratiboa izatea.
b) Osasun-laguntza erraztea hutsunerik gabeko egiazko informazioaren bidez.
c) Ekintza medikoak soilik erregistratzea.
d) Zentroko beste administrazio-agiri batzuk ordeztea.

294.- Prozesu baten bidez historia kliniko bateko dokumentu batzuk ezabatzen dira kontserbazio-irizpide jakin batzuk aplikatuz; zer izen dauka?

a) Indexazioa.
b) Dokumentuak garbitzea
c) Sailkapena
d) Digitalizazioa

295.- Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren arabera, nolakoak dira osasun-arloko datuak?

a) Datu pertsonalak.
b) Administrazio-datuak.
c) Estatistika datuak.
d) Babes bereziko datuak.

296.- Osasun-erakundeetan EFQM eredua erabiltzen da. Zein da beraren helburu nagusia?

a) Pazienteak diagnostikoaren arabera sailkatzea.
b) Erakundeen kalitatea ebaluatzea eta kudeaketa hobetzea.
c) Diagnostiko klinikoak kodetzea.
d) Historia klinikoetarako sarbidea kontrolatzea.

297.- Datuen gutxieneko oinarrizko multzoa (DGOM); zein da helburu nagusia?

a) Pazientearen historia klinikoa ordeztea.
b) Errezeta mediko elektronikoak egitea.
c) Asistentzia-episodioen inguruko informazio klinikoa eta administratiboa erregistratzea.
d) Ospitale-ingresuak bakarrik erregistratzea.

298.- Osasunaren arloko informazio-sistemetan, zertarako baliozkotzen dira datuak?

a) Bikoiztutako erregistro guztiak modu automatikoan ezabatzeko.
b) Erregistratutako informazioaren kalitatea, koherentzia eta fidagarritasuna bermatzeko.
c) Bildutako informazioaren bolumena txikitzeko.
d) Kode klinikoak ordezteko.

299.- Gibelaren hantura adierazten duen termino medikoa:

a) Hepatoma.
b) Hepatitisa.

c) Hepatomegalia.
d) Hepatopatia.

300.- Excel eta Calc kalkulu-orrietan, formulen hasieran beti agertu behar da:

a) #
b) $
c) =
d) %